



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Irakaskuntza publikorako
sarbidearen azterketa: Europako
irakasle-gaitasunak oinarri**

Maialen Oiartzun

103-109 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.13>



Irakaskuntza publikorakorako sarbidearen azterketa: Europako irakasle-gaitasunak oinarri

Oiartzun Irastorza, M.

Hezkuntza Zientzien Saila, UPV/EHU
maialen.oiartzun@ehu.eus

Laburpena

2020ko LOMLOE legeak eskola publikoko irakasleen hautaketa-sistema egokitzeko konpromisoa azaldu du. Azken hamarkadetan hautaketa-sistema berdintsu mantendu da eta ez da berrikuntzarik egin egungo errealitateari egokitzeko. Horrexegatik, ikerketa-lan honetan XXI. mendean behar ditugun irakasleak hautatzeko balio ote duen aztertu dugu. Ikusi dugunez, Euskadiko hautaketa-sistemak ikasgelako zereginen buruzko ezagutzak eta gaitasunak ebaluatzen ditu eta hori, nazioartean balioetsita dagoen ikuspegiaren arabera, ez da nahikoa, beharrezkoak diren irakasle-gaitasun asko ez baitira kontuan hartzen.

Hitz gakoak: irakaslearen rola, irakaslea aukeratzea, irakaslearen ebaluazioa

Abstract

LOMLOE, the last education law of Spain, undertakes to adapt its teacher recruitment system. In recent decades, the teacher selection has remained the same and no innovations have been made to adapt it to the current situation. For this reason, we have analysed whether it serves to select the kind of teacher that is required in the 21st century. As we have seen, this selection system assesses knowledge and skills about classroom tasks. According to the international perspective, this is not enough, as many of the necessary teaching skills are not taken into account.

Keywords: Teacher role, teacher recruitment, teacher appraisal

1. Sarrera eta motibazioa

Espainiako irakaskuntza publiko ez unibertsitariorako sarbidearen egokitasuna ezbaian egon da azken bi hamarkadetan (Egido, 2010; Escudero, 2010; Requena, 2007; Ruiz Valle, 2012) eta eztabaida soziala piztu du horrek. Esparru politikoari dagokionez, onartu berri den LOMLOE legeak gaiarekiko kezka jaso du. Hala, sistema berrikusi eta egokitzeko asmoa azaldu du bertan eta urte beteko epea ezarri du elkarte autonomikoekin batera proposamen bat erdiesteko (3/2020 Lego Organikoa, abenduaren 29koa).

Gauzak horrela, lan honen helburua, irakasleen hautatzeaz Europan dauden ereduak aintzat hartuta, bide berriak aztertzea da. Horretarako, komunikazio honetan arreta irakaslearen rolean eta irakasle-gaitasunetan jarriko dugu; literaturak dioena Euskadiko errealitatearekin alderatuko dugu, non gauden eta norantz joan beharko genukeen irudikatze asmoz.

2. Arloaren egoera eta ikerketa-helburuak

2.1. Irakasle-gaitasunak nazioartean

Ikaskuntza bizitza osora hedatu izanak eta irakaskuntzaren kalitatearen bilaketak irakasle profesioaren eraldaketa ekarri du. Izan ere, eskolak arrakastatsuak izateko irakasleak gako direla aitortzen da eta alde horretatik bere eginkizunen eztabaida zabaldu da. Horren harira, Europako hezkuntza-politikak irakasle-gaitasunak ongi definitzearen beharra azpimarratu du (Sánchez-Tarazaga, 2016) eta dagoeneko Europako herrialde gehienek irakasle-gaitasunen markoak zehaztu dituzte, hau da, irakasleak profesional gisa ezagutu, ulertu eta egiteko gai izan behar duena jaso dute (Eurydice, 2018). Hala ere, oraindik ez da herrialdeen arteko bateratasunik lortu irakasle-gaitasunei dagokienean. Conway eta bere kideek (2009) adierazi dutenez, irakasle kalitatea edota irakasle-gaitasunei buruzko eztabaidaren atzean, beste hainbat eztabaida zabalago

daude; esate baterako, irakaskuntzari buruzko usteak, ikaskuntza helburuak edota borondate politikoa. Beraz, irakasleen gaitasunei buruzko eztabaida irekita dagoen arren, ez da oraindik bide bateraturik erdietsi.

Puntu bateratua bilatzeko asmoz, nazioarteko erakundeek ikuspegi aniztasuna eta ebidentzia zientifikoak kontuan hartuta, erreferentziazko gaitasunen esparrua ezartzeko ahalegina egin dute. 2005ean, adibidez, Europak irakasleen gaitasunen gainean ezarritako printzipioei jarraituz, Europar Batzordeak hiru eremu proposatu zituen: besteekin lan egiteko gaitasuna; ezagutzarekin, teknologiarekin eta informazioarekin lan egiteko gaitasuna; eta gizartearekin zein gizartearentzat lan egiteko gaitasuna (Europar Batzordea, 2005). Zortzi urte beranduago, Europar Batzordeak aurreko proposamena berritu eta 28 funtsezko gaitasun zehaztu zituen, baina azken honetan beste hiru bloke hauetan banatuta: ezagutzak eta ulermena, trebetasunak eta jarrerak (Europar Batzordea, 2013). Azken proposamen hori, esan bezala, Europako politikari eta hezkuntza-ikerketari buruzko literaturan oinarrituta dago eta herrialde bakoitzaren artean desberdintasunak egon arren, denek honako gaitasun hauek funtsezkotzat jotzen dituztela azpimarratu du Europar Batzordeak:

- a) ezagutzen marko egituratu eta antolatua;
- b) ikasgai espezifikoak irakasteko moduari buruzko ezagutza sendoa;
- c) ikasgelako irakaskuntza eta kudeaketako trebetasunak eta estrategiak;
- d) eskola komunitate profesionalean lan egiteko trebetasun interperstonal, kolaboratiboak, gogoetatsuak eta ikerketa-trebetasunak;
- e) jarrera kritikoak praktika profesionalarekiko eta berrikuntzarekiko;
- f) jarrera positiboak eta garapen profesionalarekiko, elkarlanarekiko, aniztasunarekiko eta inklusioarekiko konpromisoa;
- g) errealitate desberdinetara egokitze gaitasuna.

Laburbilduz, irakasle-gaitasunak definitu eta zehazterako orduan desadostasunak badaude ere, nazioartean balioesten den ikuspegiak irakaskuntza profesio zabalean ulertzen du. Horiek horrela, irakasleak aditua izan behar du eta ezagutza profesionala etengabe berritu eta zabaldu egin behar du. Beraz, prest egon behar du bai bere praktika etengabe zalantzan jartzeko, bai gainerako irakasle eta eragileekin elkarlanean berrikuntzari eta hobekuntzari begira lan egiteko. XXI. mendeko irakasle-gaitasunak, beraz, elkarren artean osagarriak diren 6 paradigma hauen arabera uler daitezke (Paguay eta Wagner, 2012): irakaslea ezagutzaren aditu gisa; irakaslea trebe gisa; irakaslea ikasgelako aktore gisa; irakaslea gizarte eragile gisa eta, azkenik, irakaslea ikastun iraunkor gisa.

2.2. Euskadiko hautaketa-sistema

Euskadiko irakaskuntza publiko ez unibertsitariorako sarbide-sistema oposizio-lehiaketa da. Irakaskuntza profesio arautua izanik, irakaskuntza publikoko irakasleriaren hautaketa Estatuak arautzen du eta hautaketa-prozesuen antolaketa autonomia erkidegoen ardura den arren, hark ezarritako zehaztapenak eta jarraibideak bete behar dira halabeharrez. Ondorioz, maisu-maistren hautaketari dagokionez, Euskadiko errealitatea irudikatzeke, testuinguru zabalagoa izan behar dugu kontuan.

Irakasle-lanbideari buruzko legedia 2006ko LOE legeak ezarritakoa da. Bertan, besteak beste, irakasle ikasketak Europako eredura egokitu eta 4 urteko gradukoa izango zela zehaztu zen (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa). Gainera, espezialitateak doitu egin ziren eta maisu-maistren kasuan zazpi zehaztu ziren: lehen hezkuntza, haur-hezkuntza, ingelesa, pedagogia terapeutikoa, gorputz-hezkuntza, entzumena eta hizkuntza, eta musika-hezkuntza. Testuinguru berri horretan, estatuak irakasle ikasketa berriak ofizial izateko baldintzak ezarri zituen eta baldintza horietan, irakasle izateko ikasleek barneratu beharreko gaitasunak zehazten dira (ECI/3857/2007 Agindua, abenduaren 27koa). Gaur egun, gaitasunen zerrenda hori da Espainiako irakasle-gaitasunen markoa zehazten duen dokumentua.

Ikasketa eta espezialitate berriak direla eta, 2007an ere hautaketa-prozesuaren lege berria aldarrikatu zen (276/2007 Errege Dekretua, otsailaren 23koa). Bertan, oposizio-lehiaketa

espezialitate berrien arabera egokituko dela adierazten da eta, horren harira, gaitegia ere aldatu egiten da. Probak, ordea, bere horretan mantentzen ditu azken lege honek. Beraz, aurreko legean ezarritako egitura bera mantentzen du. Azken hamarkada hauetan zehar izan duen bilakaera ikusita, aztertzea da indarrean dagoen sistema egokia ote den, hau da, XXI. mendean behar ditugun irakasleak aukeratzeko balio ote duen.

Dagoeneko oposizio-sistema desegokitzat jo duten hainbat ikerketa-lan egin dira (Egido, 2010; Escudero, 2010; Requena, 2007; Ruiz Valle, 2012). Zehazki, ikuspegi zaharkitua duela eta, ondorioz, XXI. mendean behar ditugun irakasleak hautatzeko balio ez duela salatu dute autore horiek. Horrexegatik, sistema hobetzeko egin diren proposamenek ikuspegi eguneratuagoa eta zabalagoa izateko beharra azpimarratu dute, irakaskuntza profesio sendo gisa ulertuta, alegia (López Rupérez, 2015; Marina et al., 2015).

2.3. Ikerketa helburua

Ikerketa-lan honen helburua Euskadin indarrean dagoen hautaketa-sistemaren errealitatea ulertzea izan da, hau da, hautaketa-prozesuan kontuan hartzen diren gaitasunak identifikatzea baino, gaitasun horiek zergatik aukeratu diren ulertzea eta aukeraketa horrek izan ditzakeen ondorioak aztertzea izan da lanaren asmoa.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia

Ikerketa-lan honen helburua betetzeko, azterketa kualitatiboa eta interpretatzailea egin dugu eta honako prozedura jarraitu dugu: a) gure ikerketarako interesgarrienak diren dokumentuak aukeratu ditugu, arreta berezia jarriz irakasle -gaitasunen esparrua zehazten duten dokumentu nazionalak zein nazioartekoetan eta hautaketa -prozesuari buruzko legedian (ikus 1. Taula); b) bertako irakasle-gaitasunen esparrua eta nazioartekoa alderatu ditugu, bien arteko berdintasun eta desberdintasunei erreparatu; c) Euskadiko oposizio - lehiaketako azken deialdian egindako probak eta erabilitako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, hautaketa-prozeduran ebaluatzen diren gaitasunak identifikatu eta aurreko bi irakasle-gaitasun esparruekin alderatu ditugu; d) bildutako datuak interpretatu egin ditugu, indarrean dagoen hautaketa-sistemaren errealitatea ulertu eta hartu beharreko norabidea zehazteko.

1. Taula: Erabilitako dokumentuak

Analisian erabilitako dokumentuak	
Europar Batasunak proposatutako kompetentzia markoa	Europar Batzordea (2013). <i>Supporting teacher competence development</i> . Brusela, Belgica: Europar Batzordea
Espainiako kompetentzia markoa	ECI/3857/2007 Agindua, abenduaren 27koa, Lehen Hezkuntzako maisu-maistren lanbidean jarduteko gaitzen duten unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatze baldintzak ezartzen dituena.
Euskadiko hautaketa-sistema	276/2007 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasleen kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia onartzen duena, eta aipatutako legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sartzeko sarbiderako araubide iragankorra arautzen duena.
	Agindua, 2019ko martxoaren 1ekoa, Hezkuntzaren sailburuarena, zeinaren bidez hautaketa-prozeduretarako deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko.

3.2. Emaitzak

Nazioarteko irakasle-gaitasunen erreferente gisa, Europar Batzordeak 2013an egindako proposamena aukeratu dugu, nazioarteko ikuspegia biltzeaz gainera, oinarri zientifikoa ere baduelako. Horrez gain, proposamena antolatuta dagoen moduak (ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak) lagundu egin digu oposizio-lehiaketan kontuan hartzen diren gaitasunak identifikatzen. Behin hori argituta, jarraian ikerketa-lan honen emaitzak azalduko ditugu.

Europar Batzordeak egindako proposamena Espainiako irakasle-gaitasunen esparruarekin alderatuta, biek ikuspegi bera partekatzen dutela esan dezakegu. Hau da, modu desberdinean antolatu eta deskribatu arren, Europar Batzordeak zehaztutako gaitasun guztiak aipatzen ditu Espainiakoak ere. Gogora ekarri behar dugu, Espainiako irakasle-gaitasunen esparrua unibertsitateko-titulazioak Europako ereduera egokitzeko testuinguruan ezarri zela eta, beraz, bi irakasle-gaitasunen esparruak lerrotatuta egotea ez da harrizkoa.

Deigarria dena da aipatutako irakasle-gaitasunen esparruaren eta oposizio-lehiaketan kontuan hartzen diren gaitasunen artean dagoen aldea. Titulazio berriak onartzeko baldintzak zehazten dituen agindua eta indarrean dagoen hautaketa-prozesua arautzen duen Errege Dekretua urte berekoak dira, 2007koak biak. Hala ere, oposizio-lehiaketaren legea gainetik irakurtzea nahikoa da bien arteko kontraesanak eta koherentzia faltaz ohartzeko. Zehazki, hautaketa-prozesuan irakasle-gaien ezagutza espezifikoak, gaitasun pedagogikoak eta tekniken menderaketa kontuan hartuko direla aipatzen da. Beraz, aurreikusi dezakegu nazioarteko ikuspegiaren funtsezkotzat jotzen diren gaitasunetako batzuk ez dutela tokirik testuinguru honetan.

Aurreikuspen hori betetzen den ala ez ziurtatzeko, oposizioa zein praktikaldia sakon aztertu ditugu eta emaitzak ondorengo taulan jaso ditugu (ikus 2. Taula). Laburki esanda, oposizio fasean, Europar Batzordeak ezagutzen blokean bildutako gaitasun guztiak kontuan hartzen dira, baina ikasgaiari buruzko ezagutza da guztietan gailentzen dena. Curriculumari eta ebaluazioari buruzko ezagutzek ere pisu handia dute, proba gehienetan zeharka bada ere ebaluatzen direlako. Trebetasunei dagokienean, ikaskuntzaren plangintza da garrantzi handiena duena, izan ere, oposizio fasean kontuan hartzen diren gainerako trebetasunek plangintzarekin lotura zuzena dute. Ondorioz, hautagaien ezagutzak eta gaitasunak ebaluatzeko balio duen fase honen atzean dagoen irudiaren arabera, irakaslearen zereginak ikasgela barruko ekintzetara mugatzen direla ulertzen da eta irakasle onena, beraz, ikasgaia ongi ezagutu eta planifikatzen duena da.

Praktikaldia, hautagaiak zuzenean behatzeko eta benetan nola moldatzen den ikusteko aukera ematen duen fasea izanik, oposizio fasean ebaluatu ez diren gaitasunei erreparatzeko balio dezake. Hala ere, aurreko fasean kontuan izandako ezagutza eta trebetasunez gainera, hautagaiak taldean lan egiteko eta egindakoari buruz hausnartzeko adierazitako prestutasuna baloratzen dira. Aipatzekoa da, beste bi faseak ez bezala, praktikaldia ez dagoela oso zehaztuta Errege Dekretuan eta, beraz, autonomia erkidegoen esku geratzen da haren diseinua eta antolaketa. Hortaz, hemen aipatu ditugun jarrerak Euskadiko praktikaldiko ebaluazio-irizpideetan txertatu dira, baina gogora ekarri behar dugu hautaketa-prozesua arautzen duen legean jarrerak ez direla aipatu ere egiten.

Laburbilduz, irakasleriari buruz elkarren artean osagarriak diren 6 paradigma badaude (Paguay eta Wagner, 2012), Euskadiko hautaketa-prozesuan hiru baino ez dira jasotzen: irakaslea ikasgelako aktore gisa, irakaslea ezagutzaren aditu gisa eta irakaslea trebe gisa. Hautaketa-prozesuak oinarri duen ikuspegia mugatua da, eta, ez dator bat ez nazioarteko ikuspegiarekin, ez irakasle ikasketan ezarritako ikuspegiarekin ere.

Urteak dira Espainiako hezkuntza-politikek irakasle profesioan arretarik jartzen ez dutela (Oiartzun et al., 2021) eta erakutsitako interes falta hori, ikerketa-lan honetan ikusi dugun kohesio faltan islatzen da. Oposizio-lehiaketa sistema azken 20 urteotan aldatu ez den bezalaxe, irakasle profesioa eta bermatu beharreko gaitasunak ere ez dira modu antolatuan berrikusi eta, ondorioz, gaur egun ez dago argi zein den profesio honekiko ikuskera.

2. Taula: Irakasle-gaitasunen markoen eta hautaketa-prozesuan kontuan hartzen diren gaitasunen arteko alderaketa

Europar Batasunak zehaztutako gaitasunak		Es	Hautaketa	
			O	P
Ezagutzak	Gaiaren ezagutza			
	Ikasgaia irakasteko ezagutza pedagogikoa (zeregina, ikaskuntza-testuinguruak, helburuak, zailtasun espezifikoak ...)			
	Ezagutza pedagogikoa (irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzkoa)			
	Curriculumari buruzko ezagutza			
	Hezkuntzaren oinarriak (kulturartekoa, historikoa, filosofikoa, psikologikoa eta soziologikoa)			
	Hezkuntza-politiken testuinguru-, erakunde- eta antolaketa-alderdiak			
	Inklusioa eta aniztasuna			
	Teknologiaren erabilera eraginkorra ikaskuntzan			
	Garapenaren psikologia			
	Talde-dinamikak, ikaskuntzaren teoria, motibazioa			
Trebetasunak	Ebaluazio prozedurak eta metodoak			
	Irakaskuntzaren plangintza, kudeaketa eta koordinazioa			
	Ikaskuntza-materialak eta teknologiak erabiltzea			
	Ikasleen eta taldeen banakako kudeaketa			
	Irakaskuntzaren, ikaskuntza-helburuen eta prozesuen jarraipena, egokitzapena eta ebaluazioa			
	Erabakiak hartzeko eta irakaskuntza/ikaskuntza hobetzeko datuak biltzea, aztertzea eta interpretatzea			
	Ikerketako ezagutzak erabiltzea, garatzea eta sortzea			
	Lankide, guraso eta gizarte-zerbitzuekiko lankidetzak			
	Negoiazioa (elkarrekintza sozial eta politikoak hezitzaile, aktore eta testuinguru ezberdinekin)			
Sinesmenak, jarrerak, baloreak eta konpromisoa	Banaka eta lanbide-komunitateetan ikasteko trebetasun interpertsonalak, gogoetatsuak eta metakognitiboak			
	Hezkuntza-testuinguru desberdinetara egokitzea (gobernu-politikatik eskolako, gelako eta taldeko testuingurura)			
	Epistemologiaren kontzientzia (ikasgaiaren garapen historikoa, beste arlo batzuekiko harremana)			
	Aldaketarako, malgutasunerako, etengabeko ikaskuntzarako eta lanbide-hobekuntzarako jarrera, ikerketa barne			
	Ikasle guztien ikaskuntza sustatzeko konpromisoa			
	Ikasleen artean jarrera eta praktika demokratikoak sustatzeko jarrera (aniztasunaren eta kultura-aniztasunaren balorazio positiboa barne)			
Ikaskuntzarekiko berarekiko jarrera kritikoa				
Talde-lanerako, lankidetzarako eta lan-sareak ezartzeko prest egotea				

Iurria 1: Elaborazio propioa, erreferentziatut hartuta Europar Batasunak 2013an proposatuta gaitasun markoa; Espainiako gaitasun markoa (Es) eta hautaketa-sisteman (hautaketa) kontuan hartzen diren gaitasunak. Oposizioa (O) eta praktikak (P) banatuta.

4. Ondorioak

Espainiako hezkuntza-politikariek irakaskuntza publikorako sarbidea egokitzeko adierazi duen asmoa eta konpromisoa dela eta, ikerketa lan honetan irakasleen hautaketa-sistemaren errealitatea ulertu nahi izan dugu eta egindako lanetik ondorengo ondorioztatu dugu.

Aurreikusi bezala, 20 urtetan aldatu ez den hautaketa-sistemaren atzean dagoen irakasle rola ez du bat egiten nazioartean balioetsita dagoen ikuskerarekin. Hori dela eta, hautaketa-sistemak ez du bermatzen irakaskuntzan sartzen diren irakasle berriak onenak direnik, ez behinik behin, irakasle idealaren nazioartean balioetsita dauden terminoetan ulertuta. Arazoa, gainera, ez da gaur egun Espainia mailan onetsita dagoen irakasle profila ez dagoela osatuta, baizik eta ez dagoela irakasle profil adosturik. Ikusitakoaren arabera, ikuspuntu kontrajarriak daude eta, ondorioz, irakasle profesio eta lanbide-karrerari dagokion atalen artean ez dago kohesiorik.

Horiek horrela, hautaketa-sistemaren ikuskera zaharkituak irakaskuntzaren paradigma aldaketa oztopa dezake; alde batetik, ez duelako bermatzen hautagaiak irakaskuntza eredu berriak eskatzen dituen gaitasunak dituztenik eta, bestetik, irakasleek ikuskera zaharkitu hori balioesten jarraitzea bultzatzen duelako.

Honen guztiaren atzean, irakasle profesioari zuzendutako politikari eskaintako arreta eta interes eza dago. Horrexegatik, interes fokua aldatu ezean, eta lehenbailehen irakasle-gaitasunen esparru sendo eta adostua eraiki ezean, zaila izango hezkuntzako agente guztiek irakasle profesioari buruzko ikuskera eguneratu eta bateratua izatea. Ondorioz, zaila izango da ere datozen erreformak arrakastatsak izatea.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Ikerketa-lan honetan dagokigun gaiaren gaur egungo errealitatea eta egoera zein den ikusi dugu. Hautaketa-sistema hobetzeko ardura eta erreformaren gainean erabakiak hartzeko ahalmena, politikariena da. Hala ere, politikariei oinarri zientifiko sendo eta eguneratua eskaintzea ikerlariok dagokigu. Horrexegatik, Euskadiko irakasleen hautaketa-prozesua hobetzeari begira, kanpoko errealitatea aztertzea eta arrakasta duten herrialdeetako hautaketa-prozesuak eredu gisa erabiltzea da etorkizunerako planteatzen dugun norabidea. Oro har, hiru mekanismo erabiltzen dira hautaketa-prozesuan eta oposizio-lehiaketa da, hain zuzen ere, gutxien aplikatzen dena. Europako herrialde gehienetan, hautaketa libre erabiltzen da, hau da, hautagaiak elkarrizketatu ondoren, eskolek euren beharretara ongien egokitzen den hautagaia aukeratu ohi dute. Horretarako, baina, hainbat herrialdetan irakasle-gai guztien egokitasuna bermatu egiten dute akreditazio edo gaikuntza prozesu baten bidez. Aurreikusten dugu, beraz, irakaskuntzarako sarbide-sistema aipatu berri dugun ereduarekin lerrokatu beharko litzatekeela. Hala ere, irakasle-gaitasunen gaineko adostasunik ez dagoenez, ongi aztertu behar da zein testuingurutan egituratzen diren hautaketa-prozesu horiek. Izan ere, zer irizpide erabiltzen dituzte oposizio-lehiaketa erabiltzen ez duten herrialdetan? Nola bermatzen dute irakasleek XXI. mendean beharrezkoak diren gaitasunak dituztela? Zein da herrialde horietako hezkuntzarekiko borondate politikoa? Errealitate hori sakonki aztertu beharko da aurreikusten dugun eredu hori edo besteren bat Euskadiko testuinguruan nola aplikatu daitekeen ikusteko.

6. Erreferentziak

- Conway, P. F., Murphy, R., Rath, A., eta Hall, K. (2009). *Learning to Teach and its Implications for the Continuum of Teacher Education: A Nine-Country Cross-National Study*. Report to the Teaching Council. University College, Cork.
- Egido, I. (2010). El acceso a la profesión docente en España en perspectiva europea: algunas reflexiones orientadas a la mejora de la selección del profesorado. *Educación XXI*, 13(2), 47–67. <https://bit.ly/3gA5DkZ>
- Escudero, J. M. (2010). La selección y evaluación del profesorado. *Revista Interuniversitaria de Formación Del Profesorado*, 68(24,2), 201–221.
- Europar Batzordea. (2005). *Common European Principals for Teacher Competence and Qualifications*. Brusela: Directorate-General for Education and Culture.
- Europar Batzordea. (2013). *Supporting teacher competence development*. Brusela: European Commission.

- Eurydice. (2018). *La profesión docente en Europa: acceso, progresión y apoyo*. Informe de Eurydice. Luxemburgo: Oficina de publicaciones de la Unión Europea.
- López Rupérez, F. (2015). «MIR educativo» y profesión docente. Un enfoque integrado. *Revista Española de Pedagogía*, 73(261), 283–299. <https://revistadepedagogia.org/lxxiii/no-261/mir-educativo-y-profesion-docente-un-enfoque-integrado/101400002717/>
- Marina, J. A., Pellicer, C., eta Manso, J. (2015). *Libro Blanco de la Profesión Docente y Su Entorno Escolar*. Madril: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- Oiartzun, M., Fernández-Fernández, I., eta Madinabeitia, A. (2021). Seleccionar al mejor profesorado para la escuela pública: un análisis de la legislación española. In J. M. Romero, M. Ramos, C. Rodríguez & J. M. Sola (Edk.), *Escenarios educativos investigadores: hacia una educación sostenible* (or. 1142–1152). Madril: Dyckinson S.L.
- Paguay, L., eta Wagner, M. (2012). Compétences professionnelles privilégiées dans les stages et en vidéo-formation. In Léopold Paguay (Edk.), *Former des enseignants professionnels: Quelles stratégies? Quelles compétences?* (or. 181–210). De Boeck Supérieur. <https://doi.org/https://doi.org/10.3917/dbu.paqua.2012.01.0181>
- Requena, M. (2007). Reflexiones en torno al sistema de oposiciones a la docencia primaria en España y las funciones éticas de los docentes. *Cuestiones Pedagógicas*, 18, 301–324.
- Ruiz Valle, M. A. (2012). La selección docente. Piedra angular para crear un sistema educativo de calidad. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación Del Profesorado*, 15(3), 187–194.
- Sánchez-Tarazaga, L. (2016). Los Marcos De Competencias Docentes: Contribución a Su Estudio Desde La Política Educativa Europea. *Journal of Supranational Policies of Education*, 5, 44–67. <https://doi.org/http://dx.doi.org/10.15366/jospoe2016.5>

7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa-lan hau “*Irakasleriarik hoberena kalitatezko eskolarako: irakaskuntzarako sarbide-ereduaren diagnostikoa eta proposamena euskal hezkuntza publikorako*” tesi lanaren hasieran kokatuta dago eta helburu nagusia indarrean dagoen sistema ordezkatzeko, oinarri zientifiko sendoa duen proposamena egitea da. Komunikazio honetan, hautaketa-prozesuaren errealitatearen analisiaren zati bat jaso da: irakasle-gaitasunen azterketari dagokiona. Aldi berean, marko legalaren analisi diakronikoa gauzatu denez, komunikazio honetan analisi horretako datu batzuk txertatu dira. Hemendik aurrera, tesiak komunikazio honetan planteatutako norabidea jarraituko du, hortaz, hautaketa-sistemen nazioarteko analisia da hurrengo pausoa.

Komunikazio honen egileak UPV/EHUko ikertzaileak prestatzeko kontratua du 2020tik, eta IkasGura ikerketa taldeko kidea da (B maila, IT 1348-2019 Eusko Jaurlaritza, 2019). Tesia Idoia Fernandez Fernandez eta Alba Madinabeitia Ezkurraren zuzendaritzapean egiten ari da.